

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko azaroaren 17ko erabakiaren laburpena: lan-kontratatziorako laguntza ekonomikoen deialdia eta oinarri arautzaileak, Lanbidek 2023ko ekitaldian enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako egin duen laguntza-deialdiaren barruan

BDNS(Identif.): 733893.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/733893>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>), baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere (<http://www.vitoria-gasteiz.org>).

Lehena. Onuradunak

Betekizun hauek betetzen dituzten enpresa edo entitateak, edozein delarik ere beren forma juridikoa:

- Diruz laguntzeko moduko jarduerak garatzea, zuzenean, Vitoria-Gasteizko udalerrian jarduera ekonomikoa duen lantoki batean.

- Zerga eta lan betebeharrak egunean izatea, baita Vitoria-Gasteizko Udalari dagozkionak ere.

- Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik ez jaso izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez jaso izana, Ema-kumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bateginak martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia 3.1 artikuluan jasotako sexu-diskriminazioarengatik edo diskriminazio anizkoitzarengatik gertatutakoak barne, edo Lan Arloko Arau Hausteei eta Zehape-nei buruzko Legearen testu bateginak abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia 46.1.b) eta 46 bis 1.b) artikuluetan aurreikusitako zehapen osagarria jaso izana.

- Beste dirulaguntzarik ez jaso izana, pertsona bera kontratatzeko, Vitoria-Gasteizko enpresei lan-kontratatziorako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren aurreko deialdietan.

- Baldintza horiek betetzen jarraitzea, ebazpena eman arte.

- Ondasun-erkidegoen edo elkarte zibilen kasuan, horietan partaidetza duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Nolanahi ere, taldea ordezkatzeko duen pertsona bat izendatu beharko da, zeinak nahikoa ahalmen izango baitu taldeari onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak betetzeko. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea baino lehen desegiten bada elkarte, emandako dirulaguntza itzuli egin beharko da.

Kontratatuak direnak betekizun hauek bete beharko dituzte, indarrean dagoen legediak agintzen dituenek gain:

- Kontratazioaren aurreko egunean Vitoria-Gasteizen erroldatuta egotea.
- Langabezian egotea, hau da, Gizarte Segurantzaren inongo erregimenetan izena emanda ez egotea, eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaileria gisa izena emanda eta altan egotea, kontratazio-egunaren aurre-aurreko egunean, bi kasuetan.

Bigarrena. Xedea

Udalerriko langabeen lan-kontratazioa bultzatzea, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen kontratazioa faboratuz.

Hirugarrena. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

1. mota. Kontratu mugagabeak.

- Kontratuak mugagabeak izango dira, lanaldi osorako edo lanaldi partzialerako; lanaldiak gutxienez ehuneko 50ekoa izan beharko du, dirulaguntzak hartzen duen epe osoan.
- 2023ko maiatzaren 25etik 2024ko maiatzaren 31ra bitartean (egun hori barne) egiten diren kontratazioek jaso ahal izango dute dirulaguntza.
- Enplegu sorkuntza garbia ekarri beharko dute kontratazioa diruz laguntzen zaien pertsonak bertaratu aurreko 6 hilabeteetan enpresak zuen batez besteko plantilla osoaren gainean.
- Enpresak gutxienez 12 hilabetez eutsi beharko dio dirulaguntzaren xede den kontratu mugagabeari.
- Ez da dirulaguntza bat baino gehiago emango pertsona bera kontratatzeagatik, nahiz eta eskaera enpresa edo pertsona autonomo desberdinek egin, alegia, dirulaguntza bakarria emango da, eskabidea aurkeztu den hurrenkera aintzat hartuta.

2. mota. Iraupen mugatuko kontratuak, ikuskizun publikoetako artista, teknikari eta laguntzaileei dagozkienak.

- Iraupen mugatuko kontratuak, ikuskizun publikoetako artista, teknikari eta laguntzaileei dagozkienak, otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuak Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko erregelamendua onesten du I. eranskinean emandako definizioari jarraituz.
- Kontratu horiek gutxienez hiru (3) hilabeteko iraupena izan beharko dute, eta lanaldi osoa edo gutxienez ehuneko 50eko lanaldi partziala; edozein kontratu mota erabili ahal izango da, prestakuntza- eta ikasketa-kontratuak izan ezik. Aurkeztutako kontratu bakoitzeko dirulaguntzaren gehieneko iraupena sei (6) hilabetekoa izango da, kontratuaren iraupena sei (6) hilabetekoa edo gehiagokoa izan ala ez.
- Enplegu sorkuntza garbia ekarri beharko dute kontratazioa diruz laguntzen zaien pertsonak bertaratu aurreko 6 hilabeteetan enpresak zuen batez besteko plantilla osoaren gainean.
- 2023ko maiatzaren 25etik 2024ko martxoaren 1era bitartean (egun hori barne) egiten diren kontratazioek jaso ahal izango dute dirulaguntza.
- 2023ko maiatzaren 25etik 2024ko maiatzaren 31ra artekoa (egun hori barne) izango da dirulaguntza jaso lezakeen aldia. Nolanahi ere, kontratazioek epe hori gainditu dezakete, nahiz eta halakoetan ez den dirulaguntzarik jasoko gero epe horretako kostuengatik.
- Ez da dirulaguntza bat baino gehiago emango pertsona bera kontratatzeagatik, nahiz eta eskaera enpresa edo pertsona autonomo desberdinek egin, alegia, dirulaguntza bakarria emango da, eskabidea aurkeztu den hurrenkera aintzat hartuta.

Laugarrena. Oinarriak

2022ko Urriaren 14an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren 2023 dirulaguntza-deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak (2022ko azaroaren 7ko ALHAO, 127. zk). Batzar hori egin ondoren, 2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespena ematea erabaki zuen. Ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zk.), eta 2023ko uztailaren 29an jarri zen indarrean.

Horren jarraiki, 2023ko azaroaren 17an ezarri ziren lan-kontratazioa sustatzeko dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak, Lanbidek 2023ko ekitaldian enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako egin duen laguntza-deialdiaren barruan. Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Bosgarrena. Zenbatekoa

Deialdiaren diru-zuzkidura, guztira, milioi bat bederatziehun eta hogeita hamabost mila bostehun eta berrogeita zazpi eurokoa izango da (1.935.547,00 euro), 2023ko udal aurrekontuko 0823.2411.480.15 partidaren kontura 1.525.547,00 euro (Eskualdeko Plana, Lanbideren ekarpena) eta 410.000,00 euro 823.2411.480.20 partidaren kontura (Eskualdeko plana, Udalaren ekarpena).

Aurrekontu-izendapena honela banatuko da, bi laguntza-moten artean: 1. mota: milioi bat seiehun eta laurogeita bost mila bostehun eta berrogeita zazpi euro (1.685.547,00 euro), 2.mota: berrehun eta berrogeita hamar mila euro (250.000,00 euro).

1. motako laguntzak:

Gehienez 8.000,00 euroko laguntza, lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko.

Laguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du gairiditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen ehuneko 75 (ehuneko 75), enpresa kontratatzailearen kargura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa 10.000,00 eurokoa izango da lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko, baldin eta kolektibo hauetako pertsonak kontratatzen badira:

- Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak (titularrak edo onuradunak).
- 35 urtetik beherakoak.
- Luzaroko langabeak. Halakotzat joko dira kontratazio-dataren aurreko 540 eguneko aldian gutxienez 360 egunez Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu-zerbitzu publikoren batean enplegu-eskatzailerik gisa izena emanda egon diren langabeak.
- 55 urtetik gorakoak.

Kasu horretan, laguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du gairiditu kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzaren ehuneko 100a, enpresa kontratatzailearen kargura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.

Lanaldi partzialeko kontratazioetan gutxienez ehuneko 50, 4. oinarriaren arabera, egindako lanaldiaren arabera izango da dirulaguntza.

Dirulaguntzen zenbateko guztiak ehuneko 10 handituko dira kontratuak emakumeei egiten zaizkielarik. Dirulaguntzaren azken zenbatekoak, gehikuntza hori aplikatzean, ezingo du gairiditu 9.1. apartatuan jasotako kontratuen kasuan kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen ehuneko 75 ezta 9.2 apartatuan jasotako kolektiboetako pertsonen kontratuen kasuan kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen ehuneko 100 ere, kontzeptu guztiengatik enpresa kontratatzailearen kargura Gizarte Segurantzari egindako kotizazioa barne.

Urteko soldata-kostuen kalkulua, deialdia honi dagozkionetarako, dirulaguntzaren xede den kontratua duen langilearen soldata gordina izango da, enpresa edo entitatearen kontura diren Gizarte Segurantzako kostuak gehituta kontratuaren dataren ondorengo 12 hilabeteetako.

2. motako laguntzak:

Gehienez 6.000,00 euroko laguntza emango da sei (6) hilabeteko edo hortik gorako lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko.

Laguntzaren azken zenbatekoa ezingo da izan kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzakoen ehuneko 75etik gorakoa, kontratu-amaierako kalte-ordainak barne.

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa 7.500,00 eurokoa izango da sei hilabeteko edo hortik gorako lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko, baldin eta kolektibo hauetako pertsonak kontratatzen badira:

Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak (titularrak edo onuradunak).

35 urtetik beherakoak.

Luzaroko langabeak. Halakotzat joko dira kontratazio-dataren aurreko 540 eguneko aldian gutxienez 360 egunez Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu-zerbitzu publikoren batean enplegu-eskatzailerik gisa izena emanda egon diren langabeak.

55 urtetik gorakoak.

Kasu horretan, laguntzaren azken zenbatekoa ezingo da izan kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzakoen ehuneko 100etik gorakoa.

Lanaldi partzialeko kontratazioetan gutxienez ehuneko 50, 4. oinarriaren arabera, lanaldiaren arabera izango da dirulaguntza. Dirulaguntza lan egindako denboraren proportzioan kalkulatu da, gutxienez 3 hilabeteko eta gehienez 6 hilabeteko mugarekin.

Dirulaguntzen zenbateko guztiak ehuneko 10 handituko dira kontratuak emakumeei egiten zaizkielarik. Dirulaguntzaren azken zenbatekoak, gehikuntza hori aplikatzean, ezingo du gainditu 9.3. apartatuan jasotako kontratuen kasuan kontratatutako pertsonaren soldata-kostuen ehuneko 75 ezta 9.4 apartatuan jasotako kolektiboetako pertsonen kontratuen kasuan kontratatutako pertsonaren soldata-kostuen ehuneko 100 ere, kontzeptu guztiengatik enpresa kontratatzailearen kargura Gizarte Segurantzari egindako kotizazioa barne.

Dirulaguntzak ematekotan, kreditu egokia eta nahikoa izan beharko da deialdia ebazteko orduan.

Seigarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2024ko maiatzaren 31n bukatuko. Diru-zuzkidura agortzen bada, epe hori laburtu ahal izango da. Kasu horretan, deialdia zein eskabideak aurkezteko epea amaitutzat joko dira.

Vitoria-Gasteiz, 29 de noviembre de 2023

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
JOSEBA GARCÍA-ARDANAZ*